



Desekalada eta hezkuntza neurriak

2020ko maiatzaren 28

HEZKUNTZA INBERTSIOA | DESESKALADA ETA HEZKUNTZA NEURRIAK

1. Hitzaurrea.

Covid-19aren pandemiak eragindako klase presentzialak eteteak, gutxienez 2020-2021 ikasturtean, ondorengo honen birplanteamendua exijitu eta exijituko du: hezkuntza zereginen jardueraren, ikasle guztiarentzako ikasteko aukeren, gelako lanaren, irakasleen, funtsezko ikaskuntzen eta oinarrizko gaitasunen azterketaren eta irakasleen eta hezkuntzako gainerako langileen oinarrizko eta etengabeko prestakuntza prozesuena, azken finean, hezkuntzaren zentzu berarena.

Egoera honek **Hezkuntza Inbertsio Plana** abian jartzea exijituko du ikastetxeak giza-baliabideez, baliabide material eta teknologikoez hornituko duena.

Ziur aski, 2020-2021 ikasturtean, eskolan bertan ikastea *on line*-z egindakoarekin bateragarri egin beharko da eta honek erronka izugarriak eskatuko ditu, hala nola: irakasleen eta beste profil profesionalen plantilak gehietzea, irakasleei, ikastetxeei eta ezberdintasun digitalak konpontzeko ikasleei baliabide teknologiko egokiak ematea eta egun dauden plataforma digitalak gehitzea, gaur egungo eszenatokiak planteatzen dituen eskakizun berri eta gero eta handiago direnei arreta eman ahal izateko.

Oinarrizkoa da ere **Segurtasun, Osasun eta Higiene Plan** bati aurre egitea, higiene- eta osasun-neurriak ezartzeari aukera ematen diona, irakasle eta ikasleentzat baldintza egokiak bermatzeko, ikastetxeak izan ez daitezten epidemia berragertzeko guneak.

Gainera, beharrezkoa da hezkuntza neurriak hartzea, ikasturteari aurre egiteko, azken hilabeteotan bizi izandako egoera eta hezkuntza elkarterako izan dituen ondorioak kontuan hartutada.

Hori guztia, sindikatuekin negoziatu egin behar da, Estatuan zein autonomia erkidegoetan dauden mahai ezberdinetan.

2. Ziurgabetasun egoera.

Covid.19ak sortu duen osasun- eta gizarte-krisiak ziurgabetasun handi baten aurrean jartzen gaitu eta erabakiak hartzea eskatzen du, partzialki bada ere, berehalako geroa argitu dezan.

Egoera honek bi errealitateen aurrean kokatzen gaitu:

Lehenengoa, ikasturtea has dadila, osasun parametroen barruan, gutxi gorabehera "normala" den egoeran, beharrezkoak diren errefortzuekin, laguntzekin eta aldaketekin, ezberdintasuna digitalaren ondorioak eta ezagutzara sartzeko ezberdintasun sozioedukatioak berreskuratu eta konpontzeko.

Egoera honek edo beste edozeinek eskatutakoa, testuinguru berri honetan, ekitatearen eta inklusioaren bertebratu behar da eta ikasleek bizi dituzten alderdietan finkatu behar da: langabezian dauden familiak, ABEEEn, konpondu gabeko funtsezko beharrekin, Internet-erako lotura urriegia eta, kasu askotan lotura lortzeko ezintasuna, etab...

Bigarrena, txosten zientifiko guztiek ohartarazten diguten bezala, pandemiaren berragertzea eman dadila, hezkuntza jarduera presentziala etetera eramango gaituena.

Bi eszenatoki konplexu hauen aurrean, CCOOen Irakaskuntza Federazioak (CCOFE) zera jotzen du bereziki garrantzizkotzat: Ahal den neurrian, egoera honen ziurgabetasuna eta konplexutasuna eta geletara itzultzea argitzen lagundu ahal izateko, hainbat proposamen planteatzea.

Zentzu honetan, datorren ikasturtea ez dela normala izango, oraingoaren amaiera normala izaten ari ez den bezala. Eman daitekeen Itzulera eskalonatua, aldizkako konfinamendua eta *on-line*-z jarraitzeko aukerak, oso kotuan hartu beharrekoak dira. CCOOen Federazioaren aldetik, hezkuntza alorrean ordezkaritza handiena dugunez, gure papera errebindikatzen dugu eta, beraz, Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren (HLHM) Ministerioaren eta autonomia erkidego ezberdinen eremuan lan talde bat sortzea eskatzen dugu bere eszenatoki ezberdinetan hurrengo ikasturtea diseinatzeko. Halaber, HLHMarekin elkarrizketa jarraitua exijitzen dugu, diseinu hau eratzeko beharrezkotzat jotzen diren diagnostikoan zein proposamenetan parte hartzeko.

4

3. 2020-2021 ikasturterako hezkuntza neurrien Plana.

Aurtengo ikasturte bukaeraren testuinguruan, apirilaren 7ko Estatu mailako Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren bilkuran, CCOOen Federazioak zenbait proposaen defendatu zuen, gutxienez 2020-2021 ikasturtearen hasieraren eta garapenaren ezagutzen ez diren gorabeheren aurrean, dudarik gabe, baliotasuna izango dutenak.

Gainerako neurriak oinarrituko diren printzipio gidari gisa, CCOOen Irakaskuntza Federazioak hauxe uste du:

- Hasten den etapa berrian derrigorrezkoa da hezkuntza publikoa indartzea baliabide gehiago inbertituz. Izan ere, berdintasun baldintzetan hezkuntzarako eskubidea bermatzeko modu bakarra da, eta Ministerioaren eta autonomia erkidegoen arteko koordinazioa gehituz, Estatu osoan hezkuntza sistema kalitate eta ekitate gehiagokoa lortzeko xedez.
- Gure ustez, unerik egokiena da HLHMak hezkuntza sistemaren auditoria abian jartzeko. Ezinbestekoa da azken urteotan zehar zer gertatu den jakitea, etapa berri honi aurre egiteko zein baliabide behar diren, zein azpiegitura duen, saren irakaskuntzak zenbateko inplantazioa duen, etab., eta Hezkuntzaren aldeko Itun Sozial handia ezarri.
- Ziurtatu behar da irakasle guztiek, lan legepekoek eta administrazio eta zerbitzu-tako funtzionarioek irakaskuntza-ikaskuntza prozesu guztiak baldintza hobereenetan burutu ahal izatea. Hezkuntza administrazioek eta ikastetxeek beharrezko laguntza materiala eta era guztietakoa eskaini behar diete irakasleei zein administrazio eta zerbitzu-tako eta hezkuntza laguntzako langileei, irakaskuntza-ikaskuntzren hezkuntza erantzukizunak edo bere gainerako betekizun eta funtzioak burutu ahal izateko eta baita ikasleei ere beren erantzukizunak betetzeko.

Arrazoi sozioekonomikoengatik eta/edo familiarrengatik, baliabide teknologiko, material eta gizatiarrak ez dituzten ikasleak hartuko dira kontuan bereziki, gabezia horrengatik ezagutzaren iturri ezberditnetara (fisikoak eta birtualak) sarbide ekitatibo eta kalitatezko aukera ez dituztenei, hain zuzen ere.

- Irakasleak, eta baita hezkuntza zerbitzuetako pertsonala, lan legepeko eta osagarria, edozein zirkunstantziak sistemaren oinarriko zati dira baina, areago aurre egiten ari garen osasun- eta gizarte-krisiaren egoeran. Ezein unetan ez da irakaskuntza jarduera eten; horrela irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak jarraipena izan dute, baita Covid-19aren pandemiak uzten ari zaigun egoera txarrean ere.
- Gero eta garrantzitsuagoa da beharrezkoa den koordinazio egokia administrazioen artean: estatuko, autonomikoa eta herrikoa eta baita gizarte politiken eta hezkuntzako artean. Halaber, zera uste dugu: gizarte testuinguruaren ezagutza sakonak hezkuntza sistemaren arazoak hobeto ulertzen lagundu behar digula, horren erronka garrantzitsuei aurre egiteko orduan, hala nola, ekitatea bermatzeko beharrezkoak diren politikak gehitu eta eustea eta eskola inklusiborantz aurrera egitea, eskola porrota gutxitzea, eskola goizegi uztea eta ikasle guztien hezkuntza arrakasta hobetzea.
- Pandemiako egungo egoerak ez digu begien bistatik galtzen utzi behar, hezkuntzak, funtsean eta globalki garatzen jarraitu behar dituen zeharkako ardatz handiak, hala nola, haurraren eskubideak, baterako hezkuntza eta genero ikuspegia, gizarte globalizatu batean nesken eta emakumeen bereizkeria eta bortzakeriari aurre egiteko; teknologia eta hezkuntza digitalaren erabilera, denok osatzen dugun gizateriaren zerbitzura, ikaskuntza gogoetatsu, esanguratsu eta gaitasunezko pertsonalizatua; eta, azkenik, garapen jasangarrikako hezkuntza, gure biziraupena babesteko asmoz.

Irakasleei dagokienez:

1. Egoera konplikatu honetan, onartu beharra dago irakasleek aparteko esfortzua egiten ari dela. Irakaskuntzako kolektiboak bizitzen ari dena etorkizuneko erronken eta baita berehalakoan aurrean jartzen gaitu; horiek, lanbideari buruzko hausnarketa sakona irekitzea exijitzen digute, egungo eredia birpentsatzeerako aukera emango diguna.
2. Egoera honetan bereziki garrantzitsua da enplegua mantentzearen alde egitea, hezkuntza sistemaren eskakizun berriei erantzuteko, ordezkapen guztiak beteta eta bitarteko irakasleen kontratazioak blokeoa saihestuz.
3. Beharrezkoa da irakasleen lan baldintzak eta erretribuzioei dagozkienak mantendu eta hobetzea (enplegua eta soldatak), egun izugarriko esfortzua egiten ari eta egiten jarraituko dutena, hezkuntza prozesuaren ekitata eta kalitatea mantentzeko, gehienetan, ez baldintza oso egokietan.
4. Covid-19ak eragindako osasun krisialdian bizi izandako egoeraren salbuespenezkotasunak, hezkuntza presentziala eten eta *on-line*-zko irakaskuntza batez ordezkatzearagin duena, irakasleen telelana arautzea behar dela agerian ipini du. Lan jarduera hau ez da ikastetxeen antolamendua arautzen duten ezein agindu edo errege dekretuetan agertzen.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak ezin dezake Kontstituzioaren 149. artikulua egozten dion erantzukizuna saihestu. Zentzu honetan, sindikatuekin lan honen erregulazioa negoziatu, gutxienez ondoko honekin zerikusirik duenarekin:

- Telelanean, nola zenbatzen dira klase orduak.
 - Ikasleen ratioak.
 - Segurtasun eta osasun baldintzak.
 - Deskonexiorako eskubidea.
 - Bitarteko eta baliabideez hornitzea.
 - Prestakuntza.
5. Irakasleek, ikastetxeetako administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak, osasuneko profesionalak, soziokomunitarioak, administrazio eskudunak eta erakunde sindikalak osatutako diziplina anitzeko ekipoak sortzea, ikastetxean kutsaketa saihesteko jardura protokoloak ezarriko dituztenak eta, konfinamendu neurria berrien edo irakaskuntza-ikaskuntzaren betekizunaren garapenean aldaketen kasuan erantzuteko.
6. Irakasleei laguntza sozioemozionala emateko beharra. Izan ere, horretarako erantzunik gabe eta inolako gaitasunik jaso gabe, hezkuntza-, osasun- eta gizarte emergentziari aurre egin behar izan baitiote. Era berean, arrisku pertsonala gisa, irakasleak, ikastetxeetako gainerako langileak bezala, banakako babes ekipoz hornitu behar dira eta osasun ohiturak sustatu eta ikastetxeetako kutsaketak saihesteko mekanismoak sartu.
7. Bereziki garrantzitsua da irakasle guztiek, hezkuntzako profesionalek eta/edo langileek baliabide teknologiko eta material guztiak jaso ahal izatea eta baita beharrezko prestakuntza ere, bere betekizuna garatzeko kalitate, ekitate eta inklusibitate printzipioetan oinarritutako hezkuntza sistema batek eskatzen duena eta aurkitzen garen salbuespenezko testuinguruan, itzulirik gabeko hezkuntza digitalean, beren lan eta erretribuzio baldintzak mantenduz.
8. Irakaskuntza lankidetzan oinarritutako jardura da. Irakasleak elkarrekin, xede berberaz, zeregin partekatu gisa lan egin, hausnartu, egitekoak partekatu eta prestatzeko esparru bat izateak, irakaskuntzaren kalitateari zuzenean loturik dagoen baldintza da. Irakaskuntzak dakarren lan partekatuak orain inoiz baino ezinbestekoa da.
9. Gaitasunak sendotu, ingurune digitaletan eta osasun larritasunarenetan, Irakasleen Hasierako Prestakuntzaren planetan, Haur Hezkuntzan zein Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan hezkuntza prozesuak garatzeko.
10. Hezkuntza Ikuskaritzak funtsezko papera jokatu du ikastetxeei emandako babesean, marko legalak malgutzearen bidetik, bere ingurunearen eta ikasleen errealitatera modu autonomoan egokitu ahal izateko.

Hezkuntza zenbitzuetako eta osagarrietako pertsonalari dagokionez:

11. Ikastetxeetan ematen diran Hezkuntza zerbitzu eta osagarriak ezinbestekoak dira ikasleen ekitate eta berdintasun handiago eta hobe lortzeko. Ikusi, baloratu eta kontsideratu behar dugu hezkuntza laguntzako, sozioedukatioak eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak irakasleekin, familiekin eta ikasleekin egiten duen lana, hezkuntza jardueraren bereizinezko zati bezala.
12. Ikastetxe publikoetako Administrazio eta Zerbitzuetako pertsonalaren sektorean, azken urteotan kontratazioak nola eboluzionatu dutenari buruz, ez dugu datu fidagarri eta nahikorik, baina agerikoa da klasekoak ez diren aldietan ordezkaketak eta kontratazioak asko murrizten direla. Covid-19ak eragindako krisialdian egoera hau larritu egiten da. Negoziazio kolektiboa sustatzean funtsezko hobekuntza ekarriko du ikastetxeak baliabide gehiago eta hobeekin hornitzeko, gizatiarrak zein materialak, hezkuntzaren kalitate hobe lortzeko positiboki erango dutenak; ahaztu gabe, lehen esan dugun bezala, gure sektorearen profesionalen lan- eta erretribuzio-baldintzen hobekuntza mantentzea funtsezkoa dela.
13. Beti izan da funtsezkoa, baina orain ezinbestekoa egiten da, negoziatu eta profil profesional berriak eta berarizkoak ezartzea, eta baita orain daudenak egokitzea. Horregatik, zera proposatu eta erreibindikatzeko dugu: langile plantila eta baliabide material nahikoak bermatzen dituzten inbertsio plan espezifiko bat eratzeko premia, Covid-19ak sortutako krisi-egoeratik etor daitezkeen funtzionamendu, antolaketa eta kudeaketa behar berrei aurre egiteko.
14. Enplegu egonkorraren aldeko apostu garbia behar da hezkuntza sektorean, eta horrek administrazio eskudunekiko elkarriketa eskatzen du eta, asken finean, enpleguaren aldeko ituna abian jartzea, hezkuntza maila eta profesional guztiak barne hartzen dituen.
15. Urgentziaz, langile publikoentzat enplegua, soldadak eta negoziazio kolektiboa berreskuratzeari buruz sinatutako II Akordioaren arabera, administrazio eskudun eta alor bakoitzean inplikaturakoei, sendotasunez eskatu behar zaie beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartzea oraindik deitu ez diren plaza guztiak eskaini ahal izateko.
16. Beti azpimarratu dugu gure sektorearentzat funtsezkoa dela prestakuntza espezifiko eta iraunkorra izatea. Egungo krisi egoeran, eta egungo errealitateari arreta emanez, alderdi honetan funtsezko pauso bat eman behar da. Prestakuntza espezifiko eta iraunkorraren planak abian jartzeak negoziazio esparru ezberdinen erabateko lehentasuna izan behar du.
17. Ezinbestekoa da prestakuntza espezifikoaren ikastaroak egitea, krisien prebentzio antolamendu eta kudeaketa gaitan, aplikatu beharreko neurriei egokiro aurre egin eta ikastetxeak, Covid-19ari dagokionez, leku seguruak egiteko. Funtsezkoa litzateke ere, teknologia berrien erabilera eta gure lan esparruan balitaztea hobetzeko prestakuntza espezifiko ematea.

Ikasleei dagokienez:

18. Klase presentzialetarako itzulerak, berriro ematen bada, pertsonen arteko distantzia eskatuko du, irakasle batekin gela bakoitzeko egungo ikasleen ratioekin nekez beteko direnak. CCOOen Irakaskuntza Federazioak, Hezkuntza Lege berrian txertatzeko, ratio handienak proposatu ditu: 20 ikasle Lehen Hezkuntzan eta 25 DBHn. Ikastetxeetako normaltasun berriak ezinbestekoa egite du ratioak funtsean jaitea, gelako 15 pertsona baino gehiago ez, gehienbat, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.
19. Hezkuntza Bereziko ikastetxeeta, ikaleetatik kopuru hñadi baten ezaugarriak direla eta, oso konplexua suertatzen da Irakasleen eta ikasleen osasuna bermatzeko neurriak ezartzea. Horregatik, premiazkoa da administrazioak, erakunde sindikalekin batera, jarduera hasteko arau eta irizpide batzuk zehaztea, kontuan hartuta ratioak murriztu beharra.
20. Erregimen Bereziko Irakaskuntzak, bere ezaugarriengatik, tratamendu berezia eska dezake segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten arazoetan, txosten honetan jaso duguna: Ikastetxeetako osasunaren eta segurtasunaren kontuetan CCOOen proposamena: Deseskalada eta 2020-2021 ikasturtea, zein bere antolamenduan.
21. Irakaskuntza Artistikoetan, 303/2010 EDan araututako baldintza minimoak araberatu behar dira, ratioak egokitzeko. Halaber, irakaskuntza hauetako zenbaitetan inguruabar bereziak ematen dira, hala nola, zenbait musu tresna (pianoa, esaterako) edo lan tresnak (tailerretan, adibidez,) partekatu egiten dira; haize eta ahots musika tresnak birusa sakabanatzea bideratzen dute, edo segurtasun distantziak mantentzeko oztopoak, dantza eta arte dramatikoaren kasuetan.
22. Hizkuntz Eskola Ofizialek eta helduentzako hezkuntzak zenbait osagai dituzte komuejñean tratamendu berezia eskatzen dutenak: alde batetik, ikasleak adinekoan izan daitezke eta, beraz, arriskuko edo arrisku altuko pertsonak izan daitezke. Bestetik, Hizkuntz Eskolek eta helduentzako ikastetxeek Haur eta Lehen Hezkuntzakoekin (HLHI) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoekin ere (BHI) esparruak partekatzen dituzte. Kasu askotan gela berberak erabilia, aipatu maila horien eskola bukatzean, Covid-19aren kutsaketa bidea izanik. Gainera, beste ezaugarri partikularra: bi kasuetan benetako ratioak guztiz irregularrak dira. Esaterako, hizkuntz eskola ofizialeta, ezarrita dagoen ratio handiena 25 pertsonetakoa da; maiz, ziurtagiria lortzera bideratzen duten ikas mailak masifikatuegiak egoten dira, bereziki, eskaintza handiago duten hizkuntzetan: (inglesa, frantsesa eta alemana).
23. Datorren urterako eskolatze prozesuetan guztiz garrantzizkoa da gela bakoitzeko ikasleen ratio berrian kontuan hartzea, osasun- eta gizarte-krisi honetan guztiz beharrezkoak izan behar dutenak. Zentzu honetan, hezkuntza administrazioek, sindikatuarekin batera, ikastetxeetako esparruen eta gelen egoera ebaluatu behar dute, bakantean horren arabera eskaintzeko.
24. CCOOen Irakaskuntza Federazioak proposatutako ratioen murrizketak egungo lerroen bikoizketa eskatzen du eta, beraz, eskolatze prozesuan eskaintako bakanteak gehitzea.

25. Datorren ikasturtean biziko dugun egoera bereziak zera egiten du ezinbestekoa: ratioak ez gehutzea ez ezik, ikasle gutxirekin unitateak dituzten ikastetxeetan horiek ez ixtea ere, ikaleek arreta indibidualizatuagoa jasotzeko aukera izan eta beste unitatek laguntza eta errefortzuez baliatu daitzen. CCOOen Irakaskuntza Federazioak uste du Hezkuntza Ministerioak gai honi ekin behar diola Konferentzia Sektorialaren esparruan eta dagokion legegintza ezarri, unitate publikoen galera saihestu eta ahalbidetu dezan ikastetxeak lerroak izatea, administrazioek erabakitako ikasle kopuru minimoa ez eduki arren.
26. Hurrengo ikasturtearen hasieran, aurtengoan garatu ezin izan diren, gaitasunen eta oinarrizko ikaskuntzen egokitzapen prozesua burutuko da,
27. Ikasturtearen hasierako lehen unetik, beharrezkoa balitz, errefortzu, hezkuntza laguntza eta laguntze pertsonalizaturen programak abian jartzea, eskola ordutegian zein eskola ordutik kanpokoan; PROA programa eta antzekoak indartzea. Neurri hauek finantzatu behar dira hezkuntza konpentsazio lurraldeen arteko funts baten bidez.
28. Plan espezifiko sortzea, ikas leen hezkuntza ezberdintasunak kopondu eta prstattzea, ikastetxeen ixte-egoeran ahalik eta onura handiena lor dezaten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.
29. Laguntzen eta beken programa espezifiko bat abian jartzea, beharrak dituzten ikasleek behar duten materiala eskura dezaten, ingurune birtualetan eta *on-line*-zko testuinguruetan hezkuntza prozesuaren garapena arrakastaz jarraitzeko.
30. Ikastetxe irekien Plana, familiek eta ikasleek, baliabide informatikoen erabilera eta ezberdintasun digitalak gaindetzera bideratutako jardueretan parte hartu ahal izateko.
31. Hezkuntza transizioei arreta berezia eskaini, orientazioaren eta tutoretzaren ezinbesteko gehitzearekin, bakartze egoeraren eragin pean egonagatik, arazo psikosizoaen indarra gutxitzeko.
32. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen sustapena eta garapena (aukera anitzak, ikuspegi kontruktibista, irakasleek zein ikasleek bere gain harturiko erantzukizunak, irakasleek ikaskuntza, aktibo, erakaregarria eta eraginkorra...arautu behar dute, eskolan bertan egondako testuinguruetan zein distantziaz eta/edo digital erakoetan ebaluazioa burutu ahal izateko: portfolioa, banakako eta taldekako proiektuak, ikerketa lanak, aurkezpenak, erakusketak eta bideoak, ikasleen arteko ebaluazioa, autoebaluazioa, etab... Eszenatoki ireki eta aukerez betetakoan, ikasle bakoitzaren interesak eta jomugak lehenestea, tutorearen laguntzaz, bee proiektu pertsonalaren, profesionalaren, sozialaren eta bizi proiektuaren singularotasuna taxutzen joateko.
33. Ikastetxeak berriro ixten badira, ikasleen ezagutza- eta autoarautze garapenaren prozesuei eta edukiei programazio didaktikoak egokitzea: Lehen Hezkuntzan 20 minutu inguru eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 40 minutu.

34. Kezkatu behar gaitu, bereziki, pobrezia, arrisku eta zaurgarritasun egoeran bizi diren ikasleen hezkuntza jarraitzea. Egoera horietan, ezberdintasun digitala traba handia da; baina, ezin dugu onartu horrek ikasle horiek baztertzea. Aipatu egoera familien errealitate ekonomiko eta sozialari lotuta dago eta Interneterako sarbidea eta erabilera intentsiboa baldintzatzen du eta, gainera, ezberdina da autonomia erkidegoaren arabera.
35. Hezkuntza zereginaren alde egiteko bil daitezkeen indar guztiak elkartzea beharrezkoa da. Familien eta autonomia erkidegoen arteko hasieratiko ezberdintasunak gainditzeko, plan bat egon behar du administrazio ezberdinak - estatala, autonomikoa eta herrikoa-koordinatzeko eta, plan berean, hezkuntzaren alorrean eta teknologiraren erabileran, proiektuen bidezko lanean, errefortzu eta laguntza zereginetan, hezkuntza etxera luzatzean, etab.. esperientzia akreditatua duten GKEen partaidetza bideratzeko.
36. Praktika onak finkatuko dituen sistema bat bermatzea, ez orokorrean, baizik eta testuinguru eta inguruabar zehatzetan arrakastaren esperientzia gisa ulertuta eta, aurrerago, dagoeneko lineala ez den pentsumenduaren prozesu honetan, baizik eta, zirkularra, aldeiberekoa, multilateral azkarra eta aldakorra den honetan, hezkuntza eredu pertsonalatuagoaren eta digitalaren aldaketaren oinarriak sortuko dituen, ikasleak bere bizitza proiektua aukeratu eta garatu dezaten, lanbide esparrutik ez ezik pertsonala eta sozialetik ere.
37. Ikasleei jakinarazi behar diegu ezagutza eraikitzean funtsezkoak direla, bizi diren familiaren profila edozein izanda ere, baina, horretarako, aukerak eta beharrezko tresnak bere eskueran jarri behar ditugu, kasu honetan, teknologikoak eta konektibitateako, baina ez honelakoak bakarrik. Hezkuntza elkarte osoaren konplizitate, administrazio publikoekin batera, funtsezkoa da erronka honi erantzuteko.

10

Ikastetxeei dagokienez:

38. Ikastetxeko irakasleen prestakuntza planaren barruan: tresna teknologikoei buruko akordioa eta prestakuntza; zeinekin irakaskuntza-ikaskuntza prozesuei ekingo zaien, tresna digital gehiegire deskarga era erabilerarekin, klaustroa, ikasleak eta familiak larritzea saihestuz. Teknologia garrantzitsua da baina pentsamendu aditua, komunikazio konplexua, erabakiak hartzea, arazoak konpontzea, eszenatokiak sortzea eta zalantzagarritasunarekin eta konplexutasunarekin bizitzera laguntzen duten aldizkako egoerak nabarmendu behar dira, again, lehenetsi.
39. Ikasleen hezkuntza jarraipena egiteko protokolo bateratuak.
40. Aurrekaririk ez duen alama egoeran aurreratzen lortzeko, garrantzitsua da, beharrezkoak diren gizarte babesen politikak bideratzen dituzten inbertsioak garatzea, prekaritate eta pobrezia egoeran dauden familiek beren seme-alabentzat etorkizun ikuspegiak izan ditzaten.
41. Premiazkoa da hezkuntzan egin beharrezkoo inbertsioa gehitzea, baina, baita kalitatezko arreta ahalbidetzen duten politika sozialetan ere. Honek zera eskatzera garamatza: ikastetxeetan murrizketak edo unitateen ezabaketak eman ez daitezela, gutxienez, 2020-2021 ikasturtean, Konferentzia Sektorialaren esparruan hezkuntza administrazio guztien konpromisoaren bidez.

42. Dena den, eta aurretik ohartarazi den bezala, ikasturte honetan amaiera arte geratzen den tartean ez dela geletarako itzulera, normaltasunez, posible izango, Covid-19 pandemiaren bilakaera ikusita eta 2020-2021 ikasturtearen garapena erabakigarria izango dela ikasle guztien hezkuntza arrakastan aurrera egiteko.

Hezkuntza administrazioei dagokienez:

43. Estatu mailako plataforma publiko baten garapena, gainerako administrazioekiko beharrezko erantzunkidetasunarekin, hezkuntza baliabide nahikoak dituen, ekitate, inklusibitate eta kalitate plantimenduetatik balio handiko hezkuntza digitalaren eredu bat garatzeko.
44. Konektibitatean eta banda zabaleko Interneten inbertsioen gehitze erabakiorra, landa guneetan eta behartsuengan, bereziki. Inbertsio hauek, aldi berean irakasle eta ikasle kopuru handiari, etenik gabe, konexioari eustea ahalbidetu behar dute.
45. Distantziaz eta *on-line*-zko ikaskuntza programen izaera inklusiboa bermatu, ikasle guztien sarbidea eskaintzeko neurriak aplikatuz. Beharrezko gailu teknologikorik eta konektibitatekorik izan ezean, hezkuntza administrazioek helarazi beharko dizkiete. Hori guztia, nahiko arintasunez, "jaitsiera efektua" eman ez dadin, bereziki, berariazko hezkuntza beharrak dituzten ikasleen artean.
46. BEZ-a murriztua, hezkuntza erabilera duten produktu informatikoetan, ikasleentzat doakoak ez diren autonomia erkidegoetan, aparailuetan zein *sofwarre*ko lizentzietan eta erremintetan.
47. Osasun- eta gizarte- krisi egungo egoeran, funtsezkoa da beharrezko lege mekanismoak abian jartzea udalek hezkuntzako eskumenak berreskura ditzaten eta baita gizarte zerbitzuen eta inastetxeen arteko koordinazioa indartzea.

Hezkuntza sistemaren eta curriculum-aren egiturari dagokionez:

48. Proposamen hauek neurri koherenteak izan behar dute, eskola eredu berregin ez dezatenak (ordutegiak, testuliburuak eta lan jarduerak), konfinamenduaren mugaketak, *on-line*-zko aukera digitalak eta ikasleen ezagutza eraikitze berariazko gaitasuna kontuan hartzen ez dituenak.

49. Hezkuntza sistemak malgua izan behar du, ikasleei egokitua. Goizegi kanporatu ez eta nahiko atxikimendu dituena ikasleek hezkuntza arrakasta bermatuta izan dezaten.
50. Hezkuntza eredia, kooperatiboagoa, ikasleen ikaskuntza erritmo eta motibazio ezberdinei egokitua.
51. Oinarrizko curriculum komuna eta malgua, dibertsifika daitekeena eta autonomia erekidegoen, ikastetxeen eta irakasleen autonomia bermatzen duena; eta edukiz arindua, gaitasunak, trebetasunak eta funtsezko abileziak lortzen sakontzea ahalbidetzen duena. Curriculum-a aldatzeari ekin behar zaio, enziklopdikoa baino gaitasunetan oinarritua izateko eta zera ahalbidetuz: ikaskuntzak antolatzea irakasgaiak edo materiak baino zabalagoan diren ezagutza esparruetan. Honek *on-line* bidezko heziketaren egokitzapen hobeari emango lioke aukera.
52. Matedologia aktiboagoak, ikasleei bere ikaskuntzan gehiago inplikatzeko aukera eamten diena eta irakasleei ikasleekin eta beren familiekin eginkizun kooperatiboagoa eta partizipatiboan.

Ebaluazioari dagokionez:

53. Egungo egoeran, ikasten ikasteko heziketa prozesuak inoiz baino garrantzitsuagoak direnean, autoebaluazio eta koebaluazio prozesuak indartu behar dira. Ikasleek bere hausnarketa egin behar dute burututako lanari, honen helburuari eta hori gauzatzean izandako gorabeherei buruz; eta baita ikasitakoari, jakinminari, ikerkuntzari, berezko ezagutzaren garapenari eta beren egungo eta etorkizunei buruz ere.
54. Ebaluazio hezkuntza sistema osoari zabaldu behar da, bere ezaugarri globalak, hartutako heziketa politika eta inbertitutako baliabideak aztertu eta baloratu, Oraingo unetan, ezinbestekoa da, zehatz-mehatz hartutako erabakien eragina ezagutzea eta etorkiuneko bere proiektzioa.
55. Ebaluazio formatibo eredia proposatzen da, hobekuntza eta aurrerapen prozesuak zein gabeziak eta disfuntzioak detektatzen dituena, heziketa prozesua berorientatu eta berbideratzeko. Bere helburuak erabat diagnostikoa izan behar du beste ezaugarriak izateaz gainera; hala nola, jarraitua, formatiboa, integrala, orientatzailea, irizpideduna eta kualitatiboa. Eta ikasleei ez ezik hezkuntza sistema osoari ere bideratuta izan behar du.

4. Hezkuntzako inbertsioa plana:

CCOO Irakaskuntza Federazioak uste du, zehaztutako neurriei aurre egiteko, denetara 7.385.102.443,36 milioi €tako inbertsioa beharko dela, ondoko koadroan banatzen den arabera:

Irakasleak	5.151.474.000,00
Prestakuntza	136.533.496,00
Hezkuntza konpentsazio plana (errefortzu programa + bekak)	1.010.000.000,00
Ikastetxeetarako RENOVE plana	572.580.000,00
Hezkuntza hodeia.	368.455.500,00
Ekipo informatiko berriak	119.503.184,20
RENOVE plan informatikoa	26.556.263,16
Denetara	7.385.102.443,36

- Kontratazioa gehietzeko plan estatala

Neurrien planean ohartarazi den bezala, heziketa jarduera presentziala berreskuratzeak urruntze sozialaren neurriei erantzun behar die, nahitaez geletan burutu beharko dena: ikastetxeen ordutegiak birformatzea, ziur aski, ikasle guztiek ezin izango dute alde berean fisikoki egon eta eman daitekeen egoerari honi erantzuteko, gelako pertsona kopuru txikiago, irakaskuntza partekatua, hezkuntza laguntza eta errefortzuak, digitalizazioa, etab...

Horregatik, ikastetxeetako irakasle kopurua eta laguntzarako pertsonala eta espezializatuak, distantzia soziala mantentzari lotuta ez ezik hezkuntza arretari ere, eskola ordua presentzialak eten egin diren ikasturte baten ondoren.

CCOOen Irakaskuntza Federazioaren ustez, Kontratazio Estatu mailako Itun bat derriagorrrkoa da, ikastetxeak baliabide gehiagoz hornitu ahal izateko. Azpimarratu behar da hezkuntza sistema, 14/2012 EDLa onartu zenetik eman ziren murrizketatik erreperatzen ari zela. Azken urteotako presio sindikalak zenbait autonomia erkidegoetan irakasleen eskola orduak gutxitzea lortu zuen, nahiz eta oraindik Haur eta Lehen Hezkuntzako 23 orduetatik eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Erregimen Bereziako 18etatik urrun.

CCOOek egin dituen kalkuluen arabera, estatu mailan, plantilla %33 gehitu beharko litzateke. Irakasleen gehiekta honek ikasleei arreta hobeagoa ematea bermatuko du, *on-line*-z bidezko heziketak ezin izan baitu presentziala ordezkatu; horregatik, azken hilabeteotako ikaskuntzak bereziki sendotzera bideratutako neurriak beharko dira eta baita berriei aurre egin ere.

Gainera, desdobleak, errefortzuak, laguntzak, heziketa beharrak eta konpentsaziokoak dituzten ikasleentzako arreta, ikastetxeenganako eta familienganako laguntza, etab...abian jartzeko bideratuko du.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak proposatutako ratioa, hots, gelako 15 ikasle, autonomia erkidego bakoitzeko urteko soldata ezberdinak eta kantratu bakoitzari dagozkion kotizazio sozialak kontuan hartuta, 5.151.474.00 milioi € inbertitu behar direla uste dugu, kidego eta espezialitate ezberdinetako 165.191 irakasle gehiago kontratatzeko.

Irakasle kopuru hori era honetan banatuko litzateke:

- Hau, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako unitateak %17 gehitzeko beharra. Egun 521.0970 unitate dago eta CCOOen Federazioak uste du 609.513 behar direla, hots, 87.543 unitate gehiago.
- Unitateak gehitze honek irakasleen kopurua ere gehiagotzea, 165.191 maisu-maistra eta gainerako irakasle berekin dakar: Haur eta Lehen Hezkuntzako tutoreak, Pedagogia Terapeutikako (TP) eta Entzumen eta Hizkuntza (EH) espezialistak, Komunitatearen Zerbitzurako Irakasle Teknikoak (KZIT), Heziketa Berezia, sail didaktikoak, laguntzak, desdobleak, elkartze malguak, Erregimen Bereziko Irakaskuntzak (musikako irakaskuntza artistikoak, datza, arte plastikoak eta diseinua, arte dramatikoa, zaintze eta berriztapena, kontserbatorioak eta hizkuntz eskola ofizialak), Helduentzako Irakaskuntza, etab...

14

Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrean inbertitzeko Plan Estatala.

Lehen arrazoitu dugun bezala, ezinbestekoa da Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrerako Plan Estatal bat. Horregatik, Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioaren esparruan, erakunde sindikalekin batera lan talde bat sustatu behar da.

Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrean inbertitutako eboluzioari buruzko Eranskinean jakinarazten den bezala, azken hamar urteotan inbertsioak atzerakada handia jasan du, %53,2.

CCOOen Irakaskuntza Federezioan uste dugu funtzezkoa dela Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrean inbertsioa berreskuratzea, erreferentzia moduan orain hamar urtekoa hartuta. Horrek 136.533.496 milioi €tako hasierako diru saila eskatzen du hurrengo ikasurterako. Irakasleeren gaitasun digital sendotzeari bideratutako Irakasleen Prestakuntza Iraunkorrerako Planak eta larritasun soziosanitarioei erantzuteko 2020-2021 ikasturterako autonomia erkidego ezberdinek burutuko dituzten Irakasleen Prestakuntza Planetan, lehentasunez, txertatuko dira eta ikastetxeetan emango diren prestakuntza plan espezifikoeetan zehaztuko dira, ikasleen testuinguru ezberdinei egokitu ahal izateko.

Irakasle guztiek izan behar dute prestakuntzan sartzeko eskubidea, bitarteko irakasleak barne eta bait zerrenda ezberdinetan dagoena, aktiboan egon ala ez egon. Era berean, Hezkuntza administrazioek deialdiak jarriko dituzte abian, hala nola, urte anitzetarako hezkuntza berrikuntza proiektuak, irakasleen garapena sustatzeko, bai ikastetxe mailan bai banakakoan, eta ingurune digitaletan eta osasun larrialdietan hezkuntza prozesuak bideeratze.

- **Hezkuntza Konpentsazio Lurraldeen arteko Funtsa: Hezkuntzan Aurrerapen eta Laguntzarako Orientazio eta Errefortzu Programa. Beken eta ikasteko laguntzen programa.**

Irekitzen den etapa berrian, ikasturtearen hasieratik eta beharrezkoa balitz, errefortzu, hezkuntza laguntza eta laguntze pertsonalizatuak jarri behar dira abian. Eskola orduetan zein eskola orduetatik kanpo: PROA et antzeko programen gehitze eta indartzea. Hau guztia, gutxienez, 600 milioi €z hornitua izango litzateke.

Beka eta ikasteko Laguntzei dagokienez, unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzetan 2020-2021 ikasturterako 410 milioi €tako gehikuntza beharko litzateke.

Neurri hauek Hezkuntza Konpentsazioko Lurraldeen arteko Funtsa abian jartzearen bidez finantzatu beharko litzate, Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioak gidaritzan pean eta hasteko 1.010 milioi €tako aurrekontua izango lukeena.

- **Ikastetxetarako RENOVE plan estatala**

-

Hezkuntza presentzialera itzultzeak aldaketak eskatzen ditu ikastetxeetan, horietatik asko oso zaharrak, pertsonen arteko distantziak eta segurtasun eta osasun neurriak bermatzeko aldaketak sartzea oztopatzen dutenak. Gainera, agian, taldeak bikoiztu egin behar dira eta honek ikastetxeak berregituratzea eskatuko du.

Horregatik, premiazkoa da azpiegituren birgaitze prozesuak abian jartzea, instalazio berriak prestatu eta hezkuntzan emandako murrizketengatik itxita zeuden ikastetxeak berriro irekitzea, RENOVE plan baten barruan.

Programaren kostu osoa sare publikoaren 19.086 ikastetxeetarako 572.580.000 €tako inbertsio minimoan balioztatzen da.

- **Hezkuntzarako digitalizazioaren Inbertsio Plana.**

Covid-19aren osasun krisiak, heziketa jardueri Interneten bidez ekiteko beharra berekin ekarri du. Sistemarentzat erronka izan da eta agerian jarri ditu baliabideetan eta azpiegiturretan dauden defizitak, eta baita ikasleen arteko ezberdintasun digitalak.

Dudarik gabe, guzti honi Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioaren, Arazo Ekonomikoetarako eta Bilakaera Digitalerakoaren eta administrazio ezberdinen eremutik ekin behar zaio.

Hasierako ezberdintasun gainditu, beharrezko konektibitatea bermatu eta hezkuntza hodeiari funtsezko materialez hornitzeko ezinbestekoa da 368.455.500 €tako hasierako inbertsioa.

Testuinguru honetan, ikasle bakoitzeko ordenagailu bat dagoela bermatzeak (ik. Eranskinak), 119.503.184,21 €tako inbertsio minimoa ekarriko luke.

Gainera, hezkuntza administrazioek egun dauden ekipo informatikoen RENOVE plan bat egin behar dute, Honek, 26.556.263,16 €tako aurrekontu-sail gehigarria eskatuko du.

Hodeiko zerbitzuak, bereziki kezkarriak dira ikasleentzat zein familientzat, Eranskinetan zehazten den bezala. Hezkuntza neurrietan jaso den bezala, ezinbestekoa da zerbitzu hau sendotzea, hezkuntza baliabideetarako sarbidea bermatuz. Dударik gabe, honek estatuko agintarien eta autonomia administrazioen arteko Itun baten zati izan behar du.

5. Enplegu Plana.

Ekin behar zaio, berehalaxe, hezkuntza alorreko behin-behinekotasun arazoari eta lanaren estazionalitatea arindu, ikasturtearen iraupenari lotua; honek, irakaskuntza-plantilen izugarritzko desegonkortasuna (hilero, hamarnaka mila kontratu egiten dira hezkuntza alorrean, bere modalitate ezberdinetan, ia horietatik %90 aldi baterakoak dira), eta horren ondorioz, ikasleentzako kalteak.

Aldi baterako kontratuen portzentajeaz gainera, azpimarratu behar da 2019-2020 ikasturtean kontratuen % 48,7 lan eta zerbitzuetakoa dira. Dugarik gabe, portzentaje izugarri altua da, denbora oso zehatzez arautzen den sektore batentzat eta osasun krisi egoera honetan, kontratu desegite mordo eragin duena. Hezkuntza eta lan agintariak kontrolatu behar dituzte praktika hauek, sektorean oso sustraituak, daudenak.

16

Premiazkoa da, sektor osoan enplegu egonkorraren aldeko apostu garbia eta horrek Ministerioarekin, administrazioekin, patronalekin elkarriketa eskatzen du eta enpleguaren aldeko itun handia.


Beharrezkoa da, hezkuntza publikoaren irakasleen egonkortze prozesuak arintzea, enplegua hobetzeko I Akordiotik datozenak; honek, 83.215 irakasle plazen deia ekarriko luke eta baita CCOOen Irakaskuntza Federazioak proposatzen duen plantilaren handiagotzeari erantzuten dioten plaza guztiena ere.

Eranskin I: Covid-19 pandemiaren testuinguruko hezkuntza sektorea. Datuak eta zenbatekoak.


1. Enplegua hezkuntza sektorean.


Enplegua da Covid-19aren krisian lehen kaltetua. Eta hori ikus daiteke Lan eta Gizarte Segurantzatik eskaintzen zaizkigun datu ofizialetan hori ikusten ari da eta, datozen datetan okerragotu liratekeenak.

Profesionalei eta/edo langileei eragiten dien hezkuntza sektorearen ezaugarrienetako bat kontratazioaren aldi berekotasuna da. Kontratazio kopurua handiagoa da irailean eta urrian, eta jaitsi egiten da, bat-batean klaseak eteten diren hilabeteetan.




Hilero, arau orokor gisa, kontratu osoarekiko, finkoen kopurua %10 baino gutxiago da. Erakusgarri gisa, bi azken ikasturteak, 2018-2019 eta 2019-2020. Honek, dudarik gabe, krisian zehar kontratuak erraz deuseztatzean eragingo du.






CCOOen Irakaskuntza Fedezioak uste du bitarteko izaerako zerrendetako 3.455 pertsona inguru ez direla deituak izan (ordezkapenak, LH laguntza, etab...) azken asteotan. Estimazio hori egiteko, kontuan hartzen da Gizarte Seguntzaren afiliatu datuen batezbestekoa, data berberetan azken sei urteetan batezbesteko hankundearekin erkatuta.

Gizarte Segurantzzen Irakaskuntza publikoko irakasleen afiliazioaren, martxoko hilabeteetako otsailarekiko 2014 geroztik, batezbeste, %1,65 da, azkenengo hilabetean, berriz, %0,73. Datu hauek argi eta garbi erakusten dute autonomia erkidegoek erabili dituzten murrizketa politikak, eta hau gurea bezalako egoeran; ikasleak irakasleen aldetik laguntza gehiago behar dutenean.



EEZPak emandako datuek joera negatibo hau baieztatzen dute. Ikus daiteke, esaterako, 2020ko martxoan 2019ko hilabeteen berean baino 16.432 kontratu gutxiago egin direla.




Ezin dezakegu Inoiz eman ez den egoeran enpleguan izan dezakeen inpaktua. Egoera hipotetikoan soilik, Udararen ematen den enpleguaren murriztapena aurreratzen dela apiriletik irailera bitarteko hilabeteetara, 106.850 kontratu gutxiagoz hitz egiten arituko ginatke.

Gainera, aurreko honi, enpleguaren aldi baterako erregulazio espedienteen (ABEEE) ostean emango den enplegu suntsiketa batu beharko zaio. Aipatu espedienteok astebete hauetan aplikatzen joan dira eta ez dakigu zenbaiti eragiten dieten.


Era beran, autonomia erkidegoek Enplegu Publikoaren Hobekuntzarako I Akordioa ez betetzeak (bederatzik, beren enplegu eskaintza publikoetan ez dituzte onartu, zehaztu behar ziren egonkortasun plazen erdia ere; honako hau, indikatzaile argia da hezkuntza administrazioek, (CCOOen etengabeko eskakizunengatik ere, ez dutela Akordioa bete nahi izan); honek guztiak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren lidergo ezari lotuta, plantilen zahartze gehikuntza ekarri dute (120.000 erretiro baino gehiago hurrengo hamar urteetan). Plaza hauek eta Enpleguaren azken Eskaintza Publikoetan hutsik geratu direnak eta konprometitu dauden berriak betetzeko, ezinbestekoa da 83.215 plazak eskaintzeko deialdia egitea. Horrela soilik, aldi baterakotasun tasa %8ra murrizteko helburua betetzea lortuko da.

Enplegu publikoa hobetzeko | Akordioaren beteze egoera




20

% deitu gabeko plazak



2. Covid-19 pandemiaren aurren funtseko tresna: Irakasleen hasierako Prestakuntza berreskuratzea.

Hezkuntzako murrizketen garaian zehar, irakasleen prestakuntza iraunkorrerako administrazio publiko ezberdinen aurrekontu-sailak nabarmen gutxitu dira. Azken hamar urteetako gastuaren eboluzioaren azterketak, autonomia erkidegoen aurrekontuen arabera, erakusten du estatu mailako murriztapena %53,2 izan dela, hau da, 269.833.500 €tatik 152.490.000 €tara. Irakasleen prestakuntzarekiko, Autonomien konpromisoaren murrizketa hau, hezkuntza prozesuari dakarkion eragin negatiboarekin, ikuskatu ahal izango da, esaterako, kontuan hartzen badugu 2009-2010 ikasturtean irakasle bakoitzeko gastua eurotan.



Edo 2018ko gastua non, diferentziak mantentzen diren




Horretarako uste dugu, irakasleen prestakuntza iraunkorrerako Plana behar dela, hasierako finantzaketa izan eta egungo inbertsioa 136.533.496 eurotan gehituko duena.

3. Ingurune birtualetan eta *online*-z hezkuntza prozesuak garatzeko ingurune eta tresnak.


Covid 19aren osasun krisiak, era birtualetan eta Interneten bidez heziketa jarduerari ekiteko eskakizuna ekarri du berekin. Orain arte ezezaguna eta berria den egoerak hezkuntza sistemak dituen beharrak agerian utzi ditu, hala nola, irakasleek eta ikastetxeek, eguneroko jardueran, abian jartzeko dituzten baliabidei dagokienez, mota honetako irakaskuntza-ikaskuntza estretegiak.

Baliabide materialez gainera, *online*-ko irakaskuntza metodologia didaktikoetan eta, era arrakastatsuan funtzionatzen jartzeari aukera ematen dioten tresnetara sartzean aldaketa da. Hau da, ekitatez eta kalitatez, beti oso kontuan izanda, prozesu honetan ezberdintasun digitalek duten eragin nagusia. Ikastetxeek, teknologiak berriak erabiltzeko ez dute baliabide material nahikorik. Estatu mailan, ordenagailu bakoitzeko irakasleen kopurua, batezbesteko, 1,9koa da.




22

Ikastetxeetatik %21,7ak soilik ditu zerbitzuak hodeian, familiak horietara sartu ahal izateko. %40,3ak, berria, ez ditu.



Unibertsitatetik kanpoko ikastetxeetatik ia %12k ikasleen ikaskuntzarako ez dute ingurune birtualik. Nafarroa edo Asturias bezalako erkidegoetan portzentaje hau %30 gainditzen du. Bestalde, ikastetxeetatik ia %28,7ak badu ikasleen familiak sartzeko ingurune birtualik. Portzentajea %13,3ra jaisten da Kanariarretan eta Asturiasen, hurrenez hurren





irakaskuntza

